

LAN-POL TSA ◆ OINARRIAK

DEBABE Udal Euskaltegian sor daitezkeen euskara irakasle beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko lehiaketa arautuko duten oinarriak.

Lehenengoa.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua lehiaketaren bidez lan-poltsa bat osatzea da, ondokoetarako balioko duena:

- a) Irakasleak hartzea, DEBABE udal euskaltegian eskolak emateko behin-behineko ikasle-hazkundera dela eta.
- b) Gaur egungo irakasle titularren hutsuneak betetzea, gaixotasun-baja edo bestelakoengatik lanera etorri ezinean gertatzen direnean.

Lehiaketa honen ondorioz sortuko den izangaien zerrenda DEBABE udal euskaltegian sor daitezkeen langileriaren beharrak betetzeko erabili ahal izango da, 2 urteko epean.

Bigarrena.- Kontratazioa.

Aukeratuak suertatuko diren pertsonekin izenpetuko den kontratua euskaltegiaren beharren arabera izango da.

Hirugarrena.- Lanpostuaren egitekoak.

Lanpostuaren egitekoak ondoko hauek guztiak izango dira:

- Euskara-eskolak ematea.
- Eskolak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide pedagogikoen arabera.
- Ikasleei agindutako lanak jarraitu eta zuzentzea.
- Ikasleen ebaluaketa jarraitua egitea eta beharrezkoak liratekeen azterketak aplikatzea.
- Material didaktikoa eta euskaltegia bera ondo erabili eta erabilaraztea.
- Ikasleen arreta erakarri eta helburuak erdiesteko material didaktikoa moldatu eta sortzea.
- Kanpo-ekintzak antolatzea.
- Material didaktikoa antolatu eta sailkatzea.
- Irakasle-batzaren bilera, koordinazio bilera, ebaluazio bilera eta bilera pedagogikoetan parte hartzea.
- Euskaltegiaren Kurrikulu Proiektuaren osaketan parte hartzea.
- Lanposturako gaitasuna mantentzea profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.
- Euskara-maila zehazteko sarrera-probak prestatu eta egitea.
- Material berria antolatzea.
- Bere mailari dagozkion bestelako zereginak horretarako prestakuntza jaso badu.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Laugarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Ondorengoak bete beharko dira onartua izateko eta balegokio, lehiaketan parte hartzeko:

- a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo nazioartean sinatutako lan-kontueterako hitzarmena duten herrialdeetakoren batekoa izatea.

Europar Batasuneko kideen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, izatez bananduta ez badaude; baita euren seme-alabek edo euren ezkontideen seme-alabek ere, ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude betiere. Seme-alabok hogeita bat urte baino gazteagoak edo zaharragoak izan daitezke, baldin eta gurasoen lepotik bizi badira.

Aurreko paragrafoetan ageri ez eta espainiar estatuan bizi diren atzerritarrek ere hartu ahalko dute parte. Aukeratuak izango balira, kontratua sinatu baino lehen, dagokion administrazioaren baimena dutela egiaztatu beharko lukete.

- b) 18 urte beteak izatea.
- c) Irakasle-ikasketak eginda edo bestelako unibertsitate diplomaturaren bat izatea.

Halaber, onartzekoak dira 1984ko ekainaren 8ko Aginduak araututako homologazio probak gainditu zituzten irakaslegaiak.

- d) Administrazioiko laugarren hizkuntza eskakizuna izatea. Halere, onartu egingo dira EGA titulua edo baliokidea egiaztatzen dutenen eskabideak, kasu jakin batzuetako premiei erantzuteko: hau da, 4. hizkuntz eskakizuna egiaztatuta duen hautagairik ez badago, edo kontratua egiteko orduan horietako inor libre ez badago.
- e) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea galarazten duen gaixotasun eta akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- f) Diziplina-espediente bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bazterturik ez egotea edota egiteko publikoetan aritzeko ezgaiturik ez egotea.

Bosgarrena.- Eskabide-orriak.

Lehiaketan onartua izateko eskabideak DEBABA udal euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta ondoren zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte baztertuak ez izateko. Eskaera orriak bikoitza izan beharko du, sarrera eman ondoren ale bat interesatuari bueltatzeko.

- a) Deialdiaren laugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Era berean, baloratuko diren merituak buruzko datuak ere adierazi behar dituzte, behar bezala egiaztatuz. Ez dira baloratuko eskabidean zehaztu ez diren merituak.
- b) Horiez gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da eskariarekin batera:
- NA-ren fotokopia.
 - Eskabidean adierazitako titulazio akademikoa frogatzen duen kopia.
 - Eskabidean adierazitako merituak frogatzen dituzten jatorrizko dokumentuak edota konpultsatutako kopiak, lehiaketaldian baloratu ahal izan daitezen.
 - Laugarren hizkuntza eskakizunaren jabe dela erakusten duen titulua.
 - Eskarmentua HABEren Lurralde Ordezkaritzaren batek luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

- c) Eskabideak, behar bezala izapidatuak, DEBABE Udal Euskaltegiko idazkaritzan aurkeztuko dira (Elgoibarren duen egoitzan), uztailaren 17rako. Onartuak izango dira data horretako postaren zigilua duten eskaera-orri guztiak.

Seigarrena.- Izangaiak onartzea. Deialdiak eta jakinarazpenak

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartu eta baztertu diren izangaien behin-behieneko zerrenda onartuko du DEBABE Udal Euskaltegiko Erakundeburuak eta euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuko du irailaren 7an.

Era berean, erabaki horretan bertan agertuko da, epaimahai kalifikatzailearen kide titular eta ordezkoen izendapena.

Aipatutako zerrendatik kanpo geratu diren izangaiek 5 laneguneko epea izango dute, iragarki taulan argitaratutako egunaren biharamunetik kontatzen hasita, zerrendatik kanpo geratu izana arrazoitu duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Errekamaziorik aurkeztuz gero, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko aurrekoaren modu berean argitaratuko den erabaki berrian.

Bai hautaketa prozesuan erabiliko den meritu lehiaketaren berri, bai epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak, DEBABEko Udal Euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuz egingo dira.

Zazpigarrena.- Epaimahai Kalifikatzailea.

Epaimahai Kalifikatzailea uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren legearen 31. artikulua 2. atalean zehaztutakoa kontuan hartuta honela osatuko da.

Lehendakaria: DEBABE Udal Euskaltegikoa edo berak izendatutako ordezkoa.

Bokalak: DEBABE Udal Euskaltegiko Fundazio Batzordeko hiru kide (herri bakoitzetik bat) eta HABEko kide bat.

Idazkaria: DEBABE Udal Euskaltegiko zuzendaria.

Kide guztiek, idazkariak izan ezik, izango dute ahots eta boto eskubidea (idazkariak ez du boto eskubiderik izango)

Epaimahaikideak, titularrak eta ordezkoak, nortzuk diren DEBABE Udal Euskaltegiko iragarki taulan argitaratuko da irakaslegai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

Epaimahaikideek ezin izango dute esku hartu, eta hala jakinaraziko diote DEBABE Udal Euskaltegiko lehendakariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legearen 28 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak, eta aurrekusi ez diren haietan, zer egin behar den.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Zortzigarrena.- Lehiaketa aldia

Epaimahaiak, lehiaketaldi honetan, ondorengo merituak baloratuko ditu, beti ere, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, eskabidean aipatuak izan badira eta jatorrizko dokumentuen edota kopia konpultsatuen bidez sinesgarriro egiaztatu badituzte izangaiek:

- Euskal Filologian lizentziaduna izatea: 3 puntu
- Irakasle titulua: 1 puntu. Ez da kontuan hartuko Euskal Filologiako lizentzia ere aurkeztuz gero.
- HABEk ziurtatutako esperientzia: 5 puntu gehienez (735 ordu lektibo hartuko da kontuan urte osoa izango balitz bezala, hau da, puntu 1 bezala)
- Lanpostuarekin lotura zuzena duten prestakuntza-saioak: gehienez ere, 3 puntu.

10 orduko ikastaroko, 0,1 puntu emango dira. 10 orduko ikastaroak baloratuko dira, eta ez da aintzat hartuko kopurua zehazten ez duen ikasketa agiririk, ezta 10 ordu baino gutxiagokoak direnak ere. 10 ordutik gorakoetan, berriz, proportzioan baloratuko da.

Aipatutakoez gain, ez da beste agiririk edo ikastarorik baloratuko.

Bederatzigarrena.- Merituen kalifikazioa, epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.

Oposizio aldian lortutako puntu guztiak batu eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Merituen kalifikazioa amaitzean, epaimahaiak iragarki taulan jarriko du jendaurrean oposizio-lehiaketan parte hartu duten izangaiei zerrenda, puntuaziorik handienetik txikienera zerrendatuta eta lan-poltsa osatuko dute, lehentasun hurrenkeraren arabera.

Lehentasun hurrenkera finkatzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

1. Lehentasuna izango dute, beti, 4. HE (edo baliokidea) egiaztatuta dutenek. Horien ondoren zerrendatuko dira, duten puntuazioa dutela, 3. HE (edo baliokidea) dutenak.
2. Meritu-balorazioan puntuaziorik handiena lortu dutenak.
3. Merezimendu guztiak batuta lortzen den guztizko emaitzan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du langabezia antzinatasun handiena duen pertsonak; berdinketak bere horretan jarraitzen badu, adinez nagusia denak izango du lehentasuna.

Lan-hitzarmenen iraupena Udal Euskaltegian irakasle lanak betetzeko sor daitezkeen beharren arabera izango da.

Lan-hitzarmenek gehienez hamabi hilabeteko iraupen aldia izango dute. Lan hitzarmen horiek berriro ahal izango dira, etorkizunean sor litezkeen beharren arabera, beti ere interesatuak lan kontratua berritzeari uko egiten ez badio.

Lan-hitzarmenek ez dute inoiz gaindituko lan-poltsa indarrean dagoen epemuga.

Lan-poltsa osatzeko proposatutako izangaiek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte lan-kontratua sinatzeko deituak direnean:

NAren fotokopia edo agiri baliokidea, hautagaia Europar Batasuneko beste estatu batekoa balitz.

Deialdi honetan eskatutako tituluaren eta hizkuntza eskakizunaren fotokopia konpultsatuak.

Diziplina espedienteren baten bidez edozein administraziotan jarduteko ezgaiturik ez dagoela edota 53/1984 Legean eta 598/1985 Errege Dekretuan aurreikusten diren bateraezineko zioetan ez dagoela sartuta dioen zinezko aitortpena.

Hamargarrena.- Lan-poltsa berritzea.

Irakasle berri baten beharra dagoen bakoitzean, DEBABA Udal Euskaltegiak lan-poltsara joko du. Izangaiak lanpostuari uko egiten badio, automatikoki zerrendaren azken postura pasatuko da. Honen ondorioz, zerrenda berritu egingo da.

Izangaiak kontratu baten bidez une horretan lanean ari dela egiaztatzen baldin badu, kasu honetan bakarrik mantenduko zaio meritu-lehiaketan lortutako zerrenda postua.

Ikasturtea bukatzen den bakoitzean, zerrenda berrituko da datorren ikasturteari begira lan-poltsa eguneratua egon dadin. (Kontuan hartuko da, aurreko ikasturtean eman den ordu-kopurua eta prestutasuna). Agiriak 2010eko irailaren 15erako aurkeztu beharko dira.

Hamaikagarrena.- Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta oinarri-arau hauetan ezarritakoarekin bat etorriz, lehiaketa ondo burutu dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Deialdiaren oinarri-arauen eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio egintzak inpugnatu egin ahal izango dira, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio jardunbidearen 30/1992 Legean aurreikusitako epeetan eta forman.

ESKATZAILEAREN DATUAK

1. abizena <input type="text"/>	2. abizena <input type="text"/>	Izena <input type="text"/>
Jaioteguna <input type="text"/>	NAN <input type="text"/>	
Helbidea <input type="text"/>	Posta kodea <input type="text"/>	Herria <input type="text"/>
Telefonoa <input type="text"/>	Eskuko telefonoa <input type="text"/>	

Parte hartu nahi dut DEBABE Udal Euskaltegiak osatuko duen Lan-Poltsan.

Onartu egiten dut deialdiaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua eta argitalpena. Datu horien tratamendua egingo da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta ekainaren 11ko 996/1999 Errege-dekretuak xedatutakoaren arabera. Informazioa erregistratuko fitxategi batean egongo da eta datuetara sartzeko, datuok aldatu eta ddeuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, DEBABE Udal Euskaltegiko Idazkaritzara jo daiteke: Nafarroa enparantza, 2; 20870 Elgoibar.

Tokia eta data <input type="text"/>	Eskatzailearen izenpea <input type="text"/>
Eskaera jasotako data <input type="text"/>	O.E.: Lehendakaria / Idazkaria <input type="text"/>

ESKABIDEAN AURKEZTUTAKO AGIRIAK

NA fotokopia <input type="text" value="bai"/> <input type="text"/> <input type="text" value="ez"/> <input type="text"/>	
Hizkuntza-eskakizuna <input type="text" value="bai"/> <input type="text"/> <input type="text" value="ez"/> <input type="text"/>	Zein? <input type="text" value="3"/> <input type="text"/> <input type="text" value="4"/> <input type="text"/>
EGA <input type="text" value="bai"/> <input type="text"/> <input type="text" value="ez"/> <input type="text"/>	Baliokidea / zein? <input type="text"/>

Titulazio akademikoa

Lan-esperientzia (HABEren ziurtagiria)	<input type="text" value="bai"/> <input type="text"/>	<input type="text" value="ez"/> <input type="text"/>
---	---	--

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA